

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala**

**Bakioko Udalak zerbitzuak emotearren edo jarduerak egitearren prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldarazpenaren behin betiko onarpena. (Iragarkia 2018-11-02 Bakioko).**

Bakioko Udabatzak, 2018ko irailaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, honako hau erabaki zuen: zerbitzuak ematearren edo jarduerak egitearren prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren eranskinaren aldarazpena hasiera batean onartzea.

Gauzak horrela, espedientea jendaurrean azaldu zen hogeita hamar egun baliodun epean, udal ediktu oholean, udaleko web gunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ipinitako iragarkien bidez.

2018ko irailaren 27ko erabaki hori eta berari buruzko aurrerakin guztiak arauak agintzen duten epean jendaurrean ezarri eta inork ere erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez duenez gero, erabaki hori, behin betiko onetsi dela ulertu beharko da.

Aldarazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, testua argitaratu eta bi hilabeteko epean, beti be iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita. Horrela bada, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46 artikulua ezarritakoarekin bat etorriz.

Era berean, aldarazpena oso-osorik argitaratzen da, ordenantzan era honetara jasotzeko:

- Ekitaldiak, entzunaldiak, emanaldiak:
  - Adin nagusikoentzako sarrerak: 8 euro.
  - Adin txikikoentzako sarrerak: 5 euro.

Bakion, 2018ko azaroaren 27an.— Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraiazarra